# “hartu²”

“2009ko azaroan aurkeztu genuen lehen aldiz “Hartu Berbi” ekimena. Ordutik hona, arloz arlo ehunka lagunekin harremanetan egon gara inkesta eta aldebikoen bitartez. Hain zuzen ere, Ondarroak dituen beharrak detektatzean eta hauek betetzeko proposamenak jasotzean oinarritu da gure lana. Ekimen honen azken helburua, azken finean, Ezker Abertzaleak hauteskundeetan aurkeztuko duen herri programaren oinarri nagusiak finkatzea da.

Dagoeneko baditugu hainbat ekarpen eta “Hartu berbi”ren bigarren fasea hastear dago. Orain arte bildutakoarekin eta Ezker Abertzalearen aurreko proiektuak kontuan hartuz, eztabaida gune izango diren mintegiak prestatu ditugu. Beraz, bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu. Hona hemen mintegi eta hitzaldien datak:

# “mintegiak”

Otsailak 26, larunbata- Kofradia zaharrean
9,30etatik 13 etara: Euskara mintegia
9,30etatik 13 etara: Ingurumen mintegia
15etatik 18:30etara: Berdintasun mintegia

Martxoak 12, larunbata- Kofradia zaharrean
9,30etatik 13 etara: Kultura mintegia
9,30etatik 13 etara: Kirol mintegia

# “batzarrak”

Martxoak 12, larunbata- Kofradia zaharrean
17etan: Berdura Plazako dendariei eta postuetakoei deituriko batzarra

Martxoak 31, osteguna- Kofradia zaharrean
18etan: 3. adineko jendeari zuzendutako batzarra

# “auzo batzarrak”

Martxoak 2, asteazkena- Guzur etxean
19,30etan: Artabide

Martxoak 10, osteguna- lekua zehazteke
19etan: Kamipazpi, Ibaiondo, Iturribarri

Martxoak 17, osteguna- Kofradia zaharrean
19etan: San Juan Txurru, Madalena

Martxoak 24, osteguna- Kofradia zaharrean
19etan: Kale-Handi, Iparragirre, Pixape, Iparkale, Txomin Agirre

# “inkesta”

“Arloz arloko proiektuez gain, ikuspegi orokorragoko hainbat kontu daude udalean. Horregatik, orri honekin batera, udal kudeaketari buruzko galdetegia duzu eskuragarri. Hartu berbi eta bete ezazu zuk ere inkesta.”

# “zerrendak”

“Ezker abertzalearen proiektua gauzatuko duen lantaldea osatzeko dago. Eta azken udal hauteskundeetan egin izan dugun legez, behar hori aurrera eramateko pertsona egokienen izenak emateko gonbidapena luzatu nahi dugu. Atzeko orrian daukazu horretarako lekua.”

**“Martxoaren 4a baino lehen gutunontzietan bota betetako inkestak eta zerrendarako proposamenak. Gutunontziak leku hauetan kokatuko ditugu:**

- **Plaza gain azpian**
- **Ibaiondo kalean**
- **Zaldupeko zubian**
- **Lokutegiaren aurrean, plaza musika bidean**
- **Antiguako amako eskaileretan”**